

HARRESI BOLEI

➤ HARRESIREN IZAERA

Harresi Bidasoa eskualdean boleibola praktikatu nahi duten guztien kluba da, haien jatorria, generoa, gaitasun ekonomikoa edo trebetasun-maila edozein dela ere.

Kirola egiteak osasunean, pertsonaren garapenean eta, oro har, ongizatean duen eragin positiboa gogoan, Harresik boleibola praktikatzeko aukera eman nahi dio ahalik eta jende gehienari.

Harresik beti lehentasuna emango dio Euskarari bere jardunenean, Euskara baita gure klubaren berezko hizkuntza.

➤ HARRESIREN LAN EGITEKO ERA

- Kluba osatzen dugun guztion partaidetza aktiboren aldeko apostua egiten dugu.
- Boleibolaren berezko lehiari muzin egin gabe, parte-hartzeari eta jokalari guztien garapenari lehentasuna ematen diogu.
- Epe luzeko prespektibarekin lan egiten dugu unean uneko arrakasta txikiekin itsutu gabe.
- Zerbitzuaren kalitatea bermatze aldera, formazio egokia eta eguneratua dute Harresiren entrenatzaileek eta proiektuerekin bat egiten dute.
- Proiektua sendotu eta iraunarazteko, Harresin formatutako kirolariei arbitro nahiz entrenatzaile tituluak lortzera animatu eta lagunduko ditugu.
- Genero berdintasuna eta Euskararen aldeko konpromezua Harresi Boleiren jardunaren erreferentzia ezinbestekoak dira.

➤ HARRESIREN BALIOAK

- Errespetua: Taldekieei, arerioari eta, batez ere, arbitroei.
- Adiskidetasuna: Lagunartean gehiago gozatzen da kirolaz.
- Elkartasuna eta lankidetzak: Elkarri babes emanik indartsuagoak gara banaka eta taldean.
- Diziplina eta esfortsua: Norberaren eta taldearen hobekuntzarako ezinbestekoak dira.
- Pertseberantzia: Ekinaren ekinez ezina lortu daitekeelako.
- Inklusioa: Aniztasunak aberastu eta sendotu egiten gaitu.
- Zintzotasuna: Elkarbizitzarako eta kirolaz gozatzeko ezinbestekoa da.